

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Basauriko Udala**

Basauriko Udaleko udaltzainburu lanpostua lehiaketa espezifikoaren bidez betetzeko deialdiaren oinarrien aldaketa. Oinarriak Alkatetzaren maiatzaren 17ko 2061/2019 Dekretuaren bidez onartu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak azaroaren 9an emandako 49/2022 Epaian agindutakoa betetzeko.

Alkate jaunak Alkatetzaren DEK 2023/787 Dekretua eman du, eta ebazpen-atalean honako hau dio:

«*Lehenengoa:* Maiatzaren 17ko 2061/2019 Dekretuaren 7.2.b) oinarriari beste idazkera bat ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak azaroaren 9an emandako 00049/2022 Epaian agindutakoa betetzeko; beraz, honela idatzita geratuko da:

7.2.b) “Nortasuna neurtzen duten probak, derrigorrezkoak eta ez-baztertzailerak: Nortasun orokorreko ezaugarriak, faktore psikopatologikoak, aginte-dohaina, zuzentzeko, antolatzeko, planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta gainbegiratzeko gaitasuna, eta abar ebaluatzeko probak. Horretaz gain, elkarrizketa pertsonala eta/edo taldekoa egingo da, izangaia eskatzen den lanbide-profilera egokitzen diren aztertzeke. 0,00 puntutik 7,00 puntura baloratuko da.”

Bigarrena: Emandako Epaian ezarritakoaren arabera, Basauriko Udaleko udaltzainburua hautatzeko prozesuaren jarduerak atzera botatzea eta nortasuna neurtzen duen proba eta elkarrizketa pertsonala eta/edo taldekoa berriro egitea, oinarri berriaren arabera; nolana ere, izangaiek gainerako probetan lortu dituzten emaitzak gorde egingo dira.

Hirugarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: Ebazpen hau jakinaraztea lehen fasea (merezimenduen balorazioa) eta bigarren faseko proba praktikoa gainditu duten izangaiei, honako hauei hain zuzen ere: Zigor Ibernía Belamendia jauna eta Asier Erkoreka Arruza jauna. Era berean, ebazpen hau Jon Eleceta Lavin jaunari jakinaraztea; horretarako, ebazpen honen ziurtagiria Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salara igorriko da, Udalaren prozesu-ordezkaritzaren bidez.»

Basaurin, 2023ko otsailaren 27an.—Alkatea, Asier Iragorri Basaguren